

Galdera- bankua eta galdetegiak eGelan (Moodle 2.7)

Irakasleentzako eskuliburua

2. bertsioa (2016/06/21)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du. Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.



Aurkibidea


Aurkibidea.....	2
Galdera-bankua.....	3
Kategoria bat sortzea	5
Galderak sortzea	7
Galderak inportatu / esportatu	9
Galdetegiak.....	13
Ezarpenak editatu	13
Iraupena	14
Kalifikazioa	14
Eskema.....	¡Error! Marcador no definido.
Galderen jokamoldea.....	15
Aukerak berrikusi.....	15
Saiakeretako aparteko mugak.....	¡Error! Marcador no definido.
Baliogabetzeak (edo "aldaketak").....	16
Galdetegia editatu	¡Error! Marcador no definido.
Galderak eta orriak aukeratu.....	17
Emaitzak.....	19

Galdera-bankua

Galdera-bankua, hain justu, gure ikastaroko galdetegieta galderak txertatzeko modua antolatzen eta kudeatzen lagunduko digun tresna da. Galdera-bankutik galderak sortu edo editatu ahal izango ditugu, kategoriata antolatu eta inportatu zein esportatu.

Bi tokitatik sartu ahal izango gara galdera-bankura:

- "Kudeaketa / Ikastaroaren kudeaketa / Galdera-bankua" bloketik (1. irudia)
- Galdetegi bakoitzaren ezarpenak finkatzeko orritik (2. irudia)



1. irudia: "Kudeaketa/Ikastaroaren kudeaketa/Galdera-bankua" blokea



2. irudia: Kudeaketa/Galdetegiaren kudeaketa/Galdetegi editatu/Galdera-bankua

"Ikastaroaren kudeaketa" menuan edo "Galdetegiaren kudeaketa" menuan "Galdera-bankua" gainean klik eginaz gero, lau esteka azalduko zaizkigu:



3. irudia: Galdera-bankua, Ikastaroaren kudeaketa

4. irudia: Galdera-bankua, Galdetegiaren kudeaketa

- **Galderak.** Esteka honetatik, pantailara sartu ahal izango gara, galderak sortzeko, editatzeko, bistaratzeko, ezabatzeko, etab.
- **Kategoriak.** Esteka honetatik galdera-kategorien kudeaketarako orrira sartuko gara. Bertan, gure galderak antolatu eta sailkatu ahal izango ditugu.
- **Inportatu.** Fitxategi batetik, galderak gehitu ahal izango ditugu gure bankuan.
- **Esportatu.** Gure galderekin, fitxategi bat lortu ahal izango dugu.

Campus Birtualaren ustez, Galdera-bankuarekin lan egiteko modurik errazena honako hau da:


1. Gure galderak txertatu nahi ditugun kategoriak sortu
2. Galderak sortu edo editatu

3. Dagokien kategoriara gehitu


Era horretan, galdetegian gehitzeko prest izango ditugu.

Kategoria bat sortzea

Kategoria bat, hain zuzen, galdera sorta bat da, eta bertan, azpikategoriak egon daitezke. Ikastaro batean txertatuta dauden edo txertatuko diren ezin konta ahala galdera antolatzeko eta sailkatzeko tresna da. Galdera guztiak zerrenda luze batean eduki ordez, oso deserosoa inondik ere, kategoriak sortu ahal izango ditugu, gure galderak askoz ere antolatuago eta txukunago eduki ahal izateko. Era horretan, errazago sortuko ditugu gure galdetegiak.



5. irudia: "Galdetegia editatu", "Gehitu galdera bat"



6.irudia: "Kategoriak", "Editatu kategoriak"




Nabarmentzekoa da Moodlen galdetegi bakoitzak galderen kategoria berezia duela, ikastaroaren kategoria-leihoan bistaratzen ez dena.

Horregatik, gomendagarria da erabili nahi dugun kategoria sortzea eta galderak kategoria horretara edo lehendik dagoen kategoria batera gehitzea, kategoria bati ez baizik eta galdetegi bati atxikita egoteagatik gure galderak ez aurkitzeak dakarren arazoa saihesteko. Izan ere, gure ikastaroko edukiak berreskuratzean, batzuetan, galdetegiari lotutako galdera horiek ez dira galdera-bankuan agertuko, ezta galdetegi horrekin lekuz aldatuko ere. Berreskuratu ahal izateko, jatorrizko ikastaroan sartu beharko dugu, eta handik galdera horiek esportatu eta helburu den ikastaroan inportatu, aurrerago azalduko dugun moduan.

Kategoriek lanean hasi aurretik, "kategoriak" esteka sakatuko dugu; hala, 6. irudiko pantaila irekiko zaigu. Ikus dezakegun bezala, orrialde honen goiko aldean, gure ikastarorako ditugun kategorien zerrenda ikusi ahal izango dugu. Gure adibidean bezala, oraindik ez baditugu kategoriak sortu, gauden ikastaroarekin lotutako kategoria bat aterako zaigu, berez; eta "Berez (dagokion ikastaroa) -rako" izena izango du.

Kategoria berriak gehitzean, honako eremu hauek bete behar dira:

- **Goragoko kategoria:** Zer kategoriatan kokatuko den. Beste kategoriarik sortu ez bada, gorena soilik egongo da erabilgarri ("Top").
- **Kategoria:** Kategoriaren izena.
- **Kategoriari buruzko informazioa:** Kategoriaren deskribapen txiki bat.



7. irudia: "Editatu kategoriak", gehitutako kategoria

Behin aldaketa horiek gauzatu ostean, "Gehitu kategoria" botoia sakatuko dugu. 7. irudian ikusiko dugu nola ageri den sortutako kategoria, eta baita kategoria hori kudeatzen lagunduko diguten ikono batzuk ere.

Nahi diren kategoriak sortu edo ezabatu daitezke. Galderak dituen kategoria bat ezabatzen ahalegintzen bagara, Moodlek eskatuko digu beste kategoria bat zehaztu dezagun, galderak horra mugitzeko.

Modu hierarkikoan ere antolatu ditzakegu kategoriak; era horretan, errazagoa izango da horiek kudeatzea. "Mugitu kategoria hona" eremuak aukera emango

digu aukeratutako kategoria beste batera mugitzeko.

Galderak sortzea

Behin gure kategoria sortuta dugunean, galderak gehituko dizkiogu. Ekintza hori hiru modutan egin ahal izango dugu:

- Dagoeneko sortutako galderak pasatuta
- Galdera berriak sortuta
- Fitxategi batetik galderak inportatuta

Bi lehenengo moduetarako, "Kudeaketa/Ikastaroaren kudeaketa / Galdera-bankua" blokean ageri den "galderak" estekan egingo dugu klik.



8. irudia: "Galderak" esteka

8. irudian, ikus dezakegu orri horretatik galderak beste kategoria batera "mugitu" ahal izango ditugula, eta baita galdera berriak sortu ere, nahi dugun kategorian gehitzeko.

Galdera bat beste kategoria batera mugitu nahi dugunean, goitibeherakoan aukeratuko dugu (8. irudia), eta ondoren, "Mugitu hona" botoia sakatuko dugu.

Galderak sarean sortzeari dagokionez, "Sortu beste galdera bat" botoia sakatuko dugu, eta hartara, hurrengo pantailara joango gara.

9. irudi honetan, Moodlen sortu ditzakegun galdera-mota guztien zerrenda aurkituko dugu, eta baita horiei buruzko deskribapen txiki bat ere, galdera-mota jakin bat aukeratzean azalduko zaiguna.

Aukeratu gehitu nahi duzun galdera-mota

- ☐  Aukera anitzak
- ☐  Aukera anitzeko kalkulu motako galdera
- ☐  Egia/Gezurra
- ☐  Entsegua
- ☐  Erantzun laburrak ausaz lotu
- ☐  Erantzun laburreko galdera
- ☐  Kalkulatutako galdera sinplea
- ☐  Kalkulatutakoa
- ☐  Lotu
- ☐  Txertatutako erantzunak (Cloze)
- ☐  Zenbakizkoa
- ☐  Deskribapena

Hurrengoa
Utzi

Aukeratu galdera-mota bat deskribapena ikusteko.

9. irudia: Galdera-motak

Galdera-motei buruzko informazio gehiago izateko, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko eskuliburua kontsultatu ahal izango da (2.6 "Galdera-bankua" atala, 78-87. orr.), beste material batzuekin batera Campus Birtualaren orrian edo honako esteka honetan eskuragarri dagoena: http://serviciosgate.upm.es/docs/moodle/manual_moodle_2.8.pdf

"Sortu beste galdera bat" botoia beti egongo da lotuta galdera-bankura, nahiz eta eskura izango dugun galdetegi baten ezarpenak finkatzen ari garenean ere, eskuineko alboko zutabearen dagoen "Galdera-bankua" blokean. Bloke hori laburtuta egon liteke, baina "Erakutsi" aukera sakatuz gero, zabaldu egingo da.

Galdetegia editatzen
Ordenatu eta orrikatu

Galdetegia editatzen: Galdetegia_proba [Galdetegiak sortzeko oinarrizko ideiak](#)

Kalifikazioak denera: 0.00 | Galderak: 0 | Galdetegi hau zabalik dago

Gehienezko kalifikazioa:

Orri hutsa

Galdera-bankuaren edukiak [Ezkutatu]

Kategoria: Por defecto en DOC_CVB

Categoría por defecto para preguntas compartidas en el contexto DOC_CVB.

Aukeratu kategoria bat:

Por defecto en DOC_CVB (4)

Galdera

<< ☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

<< ☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

<< ☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

<< ☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

aukerarekin:

◀ Gehitu galdetegira

Por defecto en DOC_CVB (4)

Gehitu ausazko galderak kategoria honetatik:

Gehitu ausazko galdera

☒ Erakutsi galderak azpikategorietatik ere

☐ Galdera zaharrak ere erakutsi

10. orria: "Galdetegia editatu" esteka, "Galdera-bankua" blokea, zabalduta

Galderak inportatu / esportatu


Galdera-fitxategiak inportatu eta esportatzeko, bestalde, "Kudeaketa" blokeko dagozkion estekak erabiliko ditugu.



Campus Birtualetik, fitxategien inportazio eta esportaziorako onartutako formatuen artetik, **GIFT** eta **Moodle XML** formatuak gomendatzen ditugu, horiek baitira bi kategorietan aurkitu ditzakegun bakarrak.

Galderak esportatzeko eta inportatzeko prozesua honako hau da:


1. Beste ikastaro batzuetan erabili nahi ditugun galderak dauden ikastarora sartuko gara.
2. Ikastaroaren orri nagusian, "Jarduerak" blokeko "Galdetegiak" esteka sakatuko dugu, edo bestela, galdetegi bat editatuko dugu, bertako galderak fitxategi batera esportatzeko (ikusi hurrengo orria).



11. irudia: "Jarduerak" blokea

12. irudia: "Galdetegiak", gaien diagraman, aktibatutako edizioan

3. "Esportatu" estekaren gainean klik egingo dugu



13. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Esportatu" esteka

Eta honako orri hau zabalduko zaigu

Esportatu galderak fitxategira ?

[▼ Tolestu guztia](#)

▼ Fitxategiaren formatua

* ? ☐ Gift formatua
 ? ☐ Moodle XML formatua
 ? ☐ XHTML formatua

▼ Orokorra

Kategoria esportatu ? Por defecto en DOC_CVB (4) ▼

☒ Fitxategiari kategoria idatzi ☒ Fitxategiari testuingurua idatzi

Esportatu galderak fitxategira

14. irudia: Galderak esportatu


a) GIFT edo Moodle XML formatuak aukeratuko ditugu ('Laguntzan', ikusi ahal izango dugu zein formatu den gure premietara hobekien egokitzen dena; izan ere, bertan ageri da azalduta zertarako balio duen bakoitzak).

b) Goitibeherako erlaitz baten bitartez, esportatu nahi ditugun galderak zer kategoriatan dauden aukeratuko dugu.

c) "Fitxategiaren kategoria idatzi" eta "Fitxategiaren testuingurua idatzi" laukitxoak markatuko ditugu.

d) Aipatutako guztia egin ondoren, "Esportatu galderak fitxategira" aukera sakatuko dugu.

Honako irudi honetan ikusiko dugu zein diren jaitsi beharreko aukerak. "Fitxategia gorde" aukeratuko dugu. XML formatuan dagoen informazio-trukerako fitxategia da; alegia, makinak irakur dezaten (eta ez pertsonak) prestatutako kodea duen fitxategia da.



15. irudia: Esportatutako galderen fitxategia jaisteko aukerak


Aplikazioak fitxategiaren izen deskribatzailea emango digu, baina aldatu nahi badugu, "Gorde honela" aukera hautatuko dugu.

4. Galderak biltzen dituen fitxategia prest dugunean, galderak inportatzeari ekingo diogu. Galderak izan nahi ditugun ikastarora joango gara. "Inportatu" esteka sakatuko dugu



16. irudia: "Kudeaketa", "Galdera-bankua", "Esportatu"


Eta honako orri hau zabalduko zaigu



17. irudia: Inportatu fitxategia

- a) Inportatu behar dugun fitxategiaren esportaziorako erabili dugun formatua aukeratu beharko dugu.
- b) "Orokorra" erlaitzaren gainean klik egingo dugu, aukera guztiak azal daitezzen.
- c) Goitibeherako erlaitz baten bitartez, galderak zer kategoriatara inportatu nahi ditugun aukeratuko dugu.
- d) "Kategoria fitxategitik lortu" eta "Testuingurua fitxategitik lortu" laukiak markatuko ditugu.

- e) "Kalifikazioak lotu" aukeran, "Errorea, kalifikazioa ez badago zerrendan" laukia markatuko dugu.
- f) "Gelditu errorea gertatzen bada" aukeran, berriz, "ez" adieraziko dugu.
- g) "Galderak fitxategitik inportatu" atalean, bi aukera izango ditugu. Bat: "Aukera ezazu fitxategi bat", "Igo fitxategia", "Aztertu", eta gure ordenagailuan aurretiaz esportatutako fitxategia aukeratu, eta "Igo fitxategi hau" aukera sakatu. Edo bi: gure nabigatzaileak horretarako aukera ematen badigu, aurretiaz esportatutako fitxategia zuzenean herrestan eramango dugu "Fitxategi batetik galderak inportatu" atalaren laukira (IEren kasuan, 10 edo bertsio handiagoa izan beharko dugu).
- h) "Inportatu" botoia sakatuko dugu.




The screenshot shows the 'Orokorra' (General) settings page for importing questions. The 'Inportatu' button is circled in red.

18. irudia: Inportatu fitxategiak, menu orokorreko aukerak

5.- Pantailan, "Inportatutako fitxategiko galderak prozesatzen" testua azalduko zaigu, eta inportatutako galdera guztiak, zerrenda batean.


6.- Behe-behean agertzen den "Jarraitu" botoian klik egin, eta prest izango ditugu galderak ikastaro berrian.



The screenshot shows the 'Inportatzen 4 galderak fitxategitik' (Importing 4 questions from the file) screen. The 'Jarraitu' button is highlighted.

19. irudia: Galderak inportatzen

Galderak geuk nahi dugun galdetegiaren txertatzeko, galdetegi horretan sartu beharko dugu, eta inportatu dugun galdera-bankutik nahi ditugun galderak aukeratu.



20. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Gehitu galdera bat"




Hauze izango da jarduteko modua, baldin eta gure galdetegi berreskuratzean ikusten badugu ez zaizkigula galderak azaltzen galdera-bankuan, galdetegiari lotu ditugulako, eta ez kategoriari, dokumentu honen 4. orrian azaldu dugun moduan; eta horrela jardun beharko dugu, halaber, galderak gure galdera-bankura inportatu nahi ditugun guztietan.

Galdetegiak

Ezarpenak editatu

"Ezarpenak editatu" sakatzean, ezarpenak finkatzeko formulariora sartuko gara.



21. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Ezarpenak editatu"

Iraupena

Atal honen egiteko nagusia formularioaren denbora-mugak adieraztea da, oraindik ere. Baina graziako epe bat emateko aukera ere azaltzen da orain, eta baita denbora agortu ondorengo jokamoldea erabakitzeko aukera ere.

Denbora-tartea

Galdetegia zabaldu
20
ekaina
2016
13
23
Gaitu

Galdetegia itxi
20
ekaina
2016
13
23
Gaitu

Denbora-muga
0
minutu
Gaitu

Epea iraungitzen denean

Saiakerak denbora agortu aurretik bidali behar dira; bestela, ez dira aintzat hartuko

Saiakera irekiak automatikoki bidaltzen dira denbora agortzean.

Hasitako saiakerak bidaltzeko epe gehigarria dago denbora bukatzean, baina epe horretan ezin da galdera gehiago erantzun

Saiakerak denbora agortu aurretik bidali behar dira; bestela, ez dira aintzat hartuko

Bidalketaren graziako epea
0
minutu
Gaitu

23. irudia: Galdetegiaren "Ezarpenak editatu", "Iraupena"

Gainera, erantzunetik erantzunera arteko denborari buruzko ezarpenak "Saiakeretako aparteko mugak" atalean metatzen dira, bertan baitaude metatuta erantzunak kopiatzeko aukerak mugatzeko modu gehienak.

Kalifikazioa

Atal hau da, oraindik ere, kalifikazio-metodoa erabakitzeke tokia (kalifikaziorik handiena, batez bestekoa...), hortxe jartzen zaie muga, halaber, saiakerei. Desagertu egin dira zigorrak; izan ere, aukera horiek "Galderen jokamoldea" ataletik kudeatuko dira aurrerantzean, lehen baino askoz ere metodo gehiago izanda aukeran.

Diseinua

"Diseinua" atalak lehen "Erakutsi" atalean aurkezten ziren aukerak metatzen ditu (galderak erabili, galderak orrika...). Gainera, elementu berri bat daukagu, berez zabaldu gabea, "Nabigazio-metodoak" izenekoa; libre gisa markatuta dagoena, berez. Markatuz gero, nabigazio sekuentziala egitera behartzen gaitu.

Diseinua

Galderaren ordena
Edizio-pantailan erakusten den bezala

Orri berria
Galdera bakoitzean
Berriz orrikatu orain

Nabigazio-metodoa*
Librea

[Erakutsi gutxiago...](#)

24. irudia: "Ezarpenak editatu", "Diseinua"

Galderen jokaera

- **Beranduagoko feedbacka** - Ikasleek erantzun bat idatzi beharko dute galdera bakoitzeko, eta gero, azterketa osoa bidali, kalifikatu aurretik eta zeinahi atzeraelikadura jaso aurretik.
- **Egokitze modua eta Egokitze modua (penalizaziorik ez)** - Ikasleek galdera bati erantzuteko hainbat saiakera egin ditzakete, hurrengo galderara igaro aurretik.
- **Interaktiboa hainbat saiakerarekin**- Galdera bat bidali eta dagokion atzeraelikadura irakurri ostean, ikasleak "Berriro saiatu" botoia aukeratu beharko du, beste erantzun batekin erantzuten saiatu aurretik. Ikasleak erantzun zuzena lortzen duenean, ezingo du erantzunez aldatu. Ikasleak gehiegitan eman badu erantzun okerra, txartzat joko zaio (edo partzialki zuzentzat); atzeraelikadura eman, eta dagoeneko ezingo du erantzuna aldatu. Ikasleak saiakera bat egiten duen aldiro, atzeraelikadura desberdina egon daiteke.
- **Berehalako feedbacka** - Modu interaktiboaren antzekoa; izan ere, azterketa-saiakeran berehala bidali ahal izango du ikasleak bere erantzuna, eta kalifikatu egingo dute. Alabaina, erantzun bakarra bidal dezake; eta ezingo du gehiago aldatu.
- **Beranduagoko feedbacka** edo **Berehalako feedbacka, CBMrekin (Certainty-based marking = CBM)**- CBMrekin, ikasleak, galdera bati erantzuteaz gainera, erantzun zuzena daukala zenbateko ziurtasunez dakien adierazi beharko du. Ziurtasun-aukeraren arabera egokituko da kalifikazioa; era horretan, ikasleek zintzotasunez adierazi beharko dute euren ezagutza maila, ahalik eta puntuazio onena lortzeko. Ikusi beheko "Hau ere ikusi" atala, CBM darabilen azterketa-adibide bat ezagutzeko eta bere filosofia azaltzen duen blogaren argitalpena ikusteko.

Ziurtasunean oinarritutako puntuazioa (Certainty-based marking)

Ikasle batek galdera bati erantzuten dionean, erantzuna zuzena dela zenbateko ziurtasunez dakien adierazi beharko du: ez oso ziur (% 67tik behera), nahiko ziur (% 67tik gora) edo oso ziur (% 80tik gora). Orduan, ziurtasun horren arabera egokituko da bere kalifikazioa. Horrek esan nahi du, esate baterako, zuzen erantzun badu, baina asmatzen ahalegintzen soilik ari bazen, bere puntuazioa jatorrizko 1 puntutik 0.33ra egokituko dela. Eta erantzun okerra ematen badu, eta gainera ondo ari zela erabat ziur bazegoen, bere puntuazioa jatorrizko 0tik -2ra jaitsiko da. Ikusi foroko eztabaida: CBM too harsh?

* Ez dira nahastu behar Egokitze moduko zigorrak (non saiakerak zigortzen diren) eta bestelako zigorrak ([erantzun okerrak zigortuta](#), baita saiakera bakarra dagoenean ere).

Aukerak berrikusi

Atal honek aurrekoaren lotura zuzena dauka.

Aukera hauen bidez, ikasleek galdetegi bateko bidalketa berrikusten dutenean edo galdetegiko txostenak kontsultatzean ikusiko duten informazioa kontrolatuko ahal izango da.

** Saiakera egin bitartean: ezarpen hauek egoera batzuetan dira esanguratsuak, adibidez "interaktiboa hainbat saiakerarekin" kasuan, saiakera egin bitartean informazioa erakustea ahalbidetzen duelarik

** Saiakera bakoitzaren ondoren: ezarpenak "bidali dena eta bukatu" botoia sakatu eta lehen bi minutuei aplikatzen dira

** Beranduago, galdetegia irekita dagoen bitartean: ezarpenak saiakeraren ostean eta galdetegia itxi aurretik aplikatzen dira

** Galdetegia itxi ondoren: ezarpenak galdetegia itxi ostean aplikatzen dira. Itxiera datarik ez bada, egoera hau ez da inoiz gertatzen

▼
Aukerak berrikusi
?

Saiakera egin bitartean	Saiakera bakoitzaren ondoren	Beranduago, galdetegia irekita dagoen bitartean	Galdetegia itxi ondoren
☒ Saiakera ?	☒ Saiakera	☒ Saiakera	☒ Saiakera
☒ Zuzena bada ?	☒ Zuzena bada	☒ Zuzena bada	☒ Zuzena bada
☒ Puntuak ?	☒ Puntuak	☒ Puntuak	☒ Puntuak
☒ Feedback zehatza ?	☒ Feedback zehatza	☒ Feedback zehatza	☒ Feedback zehatza
☒ Feedback orokorra ?	☒ Feedback orokorra	☒ Feedback orokorra	☒ Feedback orokorra
☒ Erantzun zuzena ?	☒ Erantzun zuzena	☒ Erantzun zuzena	☒ Erantzun zuzena
☐ Feedback orokorra ?	☒ Feedback orokorra	☒ Feedback orokorra	☒ Feedback orokorra

24.1 irudia: "aukerak berrikusi" atala


Aparteko murrizketak saiakeretarako

Atal honetan lehen "Segurtasuna" atalean bildutako aukerak ageri dira, eta baita "Iraupena" ataleko beste aukera batzuk ere, azterketa egitean, kontrolatzeko ea ikasleek aurreikusitakoak baino baliabide gehiago ote dituzten.

Ikastaro barnean edizio-aukerak aktibatzeke, beharrezkoa da "Aktibatu edizioa" botoia sakatzea.

Baliogabetzeak (edo "aldaketak")

"Ezarpenak editatu" formulariorako estekaren azpian, beste bi esteka daude: ("Erabiltzaile-baliogabetzeak" eta "Talde-baliogabetzeak")




25. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Talde- edo erabiltzaile-baliogabetzeak"

Bi esteka horiei esker, aukeratutako erabiltzaile edo taldeen hainbat ezarpen aldatu daitezke.



Helburua izango da, beraz, erabiltzaile edo talde jakin batzuentzat galdetegiaren hainbat baldintza aldatzea, eta ez galdetegia bera "baliogabetzea". Jatorrizko ingelesezko kontzeptuak (*overrides*) askoz hobeto azaltzen du guztia.



26. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Talde-baliogabetzeak"

Editatu galdetegia

Galderak eta orriak aukeratu

Behin galdetegia prestatuta daukagunean, bertan txertatu nahi ditugun galderak definitu beharko ditugu. Horretarako, **Editatu galdetegia** sakatu beharko dugu

Edizio-orrian, galdera-bankutik formulariora galderak lekualdatzeko eta nahi dugun ordenan jartzeko tresnak izango ditugu. Beharrezkoa izanez gero, galderak sortzeko aukerara ere sartu ahal izango gara.

Galdetegia editatzen
Ordenatu eta orrikatu

Galdetegia editatzen: Galdetegia_proba ? Galdetegiak sortzeko oinarrizko ideiak

Kalifikazioak denera: 1,00 | Galderak: 1 | Galdetegi hau zabalik dago

Gehienezko kalifikazioa: 10,00 Gorde

Orria 1

1 San Sebastián ¿Cómo se celebra la festividad d...
Honela puntuatu: 1 Gorde

Gehitu galdera bat...
Gehitu ausazko galdera bat...

Gehitu orria hemen

Galdera-bankuaren edukia [Ezkatatu]

Kategoria: Por defecto en DOC_CVB
Categoría por defecto para preguntas compartidas en el contexto DOC_CVB.

Aukeratu kategoría bat:
 Por defecto en DOC_CVB (8)

Sortu beste galdera bat...

☐ T Galdera

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

aukerarekin:

◀ Gehitu galdetegira Ezabatu Mugitu hona >>

Por defecto en DOC_CVB (8)

Gehitu ausazko galderak kategoría honetatik:

Gehitu ausazko 1 galdera Gehitu galdetegira ?

☒ Erakutsi galderak azpikategorietatik ere

☐ Galdera zaharrak ere erakutsi

27. irudia: Galdetegia editatzen

Gainera, **Ordenatu eta orrikatu** erlaitzean, galdetegia orritan banatu ahal izango dugu.

Galdetegia editatzen
Ordenatu eta orrikatu

Ordenatu eta orrikatu: Galdetegia_proba ?

Kalifikazioak denera: 1,00 | Galderak: 1 | Galdetegi hau zabalik dago

Gehienezko kalifikazioa: 10,00 Gorde

Ezabatu aukeratutakoa Gehitu beste orri batzuk aukeratutako galderen ondoren

Denak aukeratu / Guztiak alde batera utzi

Aukeratutako galderak orri honetara mugitu: Mugitu

Berrantolatu galderak

Orria 1 ☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la festividad d... 10

Ezabatu aukeratutakoa Berrantolatu galderak

Denak aukeratu / Guztiak alde batera utzi

Aukeratutako galderak orri honetara mugitu: Mugitu

Gehitu beste orri batzuk aukeratutako galderen ondoren

Galdera-bankuaren edukia [Ezkatatu]

Kategoria: Por defecto en DOC_CVB
Categoría por defecto para preguntas compartidas en el contexto DOC_CVB.

Aukeratu kategoría bat:
 Por defecto en DOC_CVB (8)

Sortu beste galdera bat...

☐ T Galdera

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ San Sebastián ¿Cómo se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

☐ Santo Tomás ¿Qué día se celebra la...

aukerarekin:

◀ Gehitu galdetegira Ezabatu Mugitu hona >>

Por defecto en DOC_CVB (8)

Gehitu ausazko galderak kategoría honetatik:

Gehitu ausazko 1 galdera Gehitu galdetegira ?

☒ Erakutsi galderak azpikategorietatik ere

☐ Galdera zaharrak ere erakutsi


28. irudia: "Ezarpenak editatu", "Ordenatu eta orrikatu"



Oso garrantzitsua da galdetegia zatikatzea; era horretan, ziurtatuko delarik Moodlek ikaslearen saioa ez duela itxiko galdetegia egin bitartean. Moodlerentzat erabiltzailearen jarduna erabiltzailearen ordenagailuaren eta zerbitzariaren arteko komunikazioa eskatzen duten orri batetik besterako edo beste ekitaldi baterako jauzian islatzen da; esate baterako, "Formularioa bidali" botoia sakatzean. Erabiltzaileak lan dezente egiten badu ere,

adibidez, erantzunak pentsatzen edo foroan mezu bat idazten, sistemak ez du hautemango. Kudeatzaileak finkatutako denbora igaro ostean, sarri askotan ordu erdi baino ez, sistemak saioa itxiko du, eta erabiltzailea plataformatik kanpo geratuko da. Ondorioz, egindako lana galdu egingo du.

Emaitzak



29. irudia: "Galdetegiaren kudeaketa", "Emaitzak"

30. irudia: Emaitzak, zabaldua

Galdetegia irekita dagoen bitartean, edo behin amaituta, irakasleak hainbat tresna ditu emaitzak kontsultatu eta aztertzeko. Tresna horiekin, ikasle baten edo talde baten kasua edo galdera guztiak aztertu ahal izango dira.

Beharrezkoa den kasuetan, saiakerak desagerrarazi daitezke edo partaide guztiak edo batzuk birkalifikatu daitezke, baldin eta kalifikazioaren kalkuluari eragiten dioten ezarpenak aldatu badira.